ttipi-ttapa

1992.eko Otsailak 6 79. zenbakia dohain banatzen da



KOMUNALAK: KONBENIOEN ZAILTASUNAK

MOLINERO

PINTURAK

Etxe barneko hezetasun, humedade eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen araberako prezioetan

Tfnoa: 63 02 40 – Eztegara19 – **BERA**

BORTZIRIETAKO HRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

JAKINARAZTEN DA:

Aurrerantzean, zerbitzuaren gorabeherengatik, altzari, etxeko tresna eta trastu zaharren bilketa hilabetero lehenbiziko ortzegunetan eginen dela, lehenbiziko asteazkenetan egin beharrean.

Aipatutako gauzak, zabor-ontzien ondoan utzi beharko dira bilketa egunaren aintzineko gauean.

Bortzirietan, 1992.eko Urtarrilaren 24ean.

PRESIDENTEA

Zure publizitatea etxe xoko guzitara

Zure publizitatea Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan, Leitza, Goizueta, Zugarramurdi, Sara eta bertze hainbertze herrietako **4.900 etxetara** zabaldu nahi baduzu, deitu 63 11 88 Telefonora

ATARIA

non - zer

4 **AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.

7 **HONTAZ ETA HARTAZ**

8 **IRAKURLEAK MINTZO**

9/23 **HERRIZ HERRI**

Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarana, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...

24 **ERREPORTAIA:** Komunal edo herri-lurren auzia oraindik moldatu gabe dago ia-ia herri gehienetan

Josemanuel Irigoien

26 **ELKARRIZKETA:** Elena Urtasun:" Mila kontsultatik goiti egin zizkiguten joan den urtean Baztanen" Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko «asistenta soziala»rekin solasean.

Aitor Arozena

28 **KIROLAK:** "Denboraldi erdia pasatutakoan arras egoera ezberdinetan daude eskualdeko futbol taldeak".

30 **MERKATU TTIKIA**

31 **DENBORAPASA**

Enbido

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 4.900 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton Erkizia, Juana Mari, Patxi Petrirena, Olhain Elkartea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldua Argazkiak, Mattari, Fermin Altzuguren eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** ***ttipi-ttapa*** . **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza.... **Inprimategia:** Gertu Kooperatiba Elkartea (Oñati)
ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061
OSASUN ZENTRUAK
Elizondo.....452367 / 580235
Doneztebe 450300
Lesaka.....637428 / 637336
Leitza .....510248 / 510573
KONTSULTAK
Arizkun 453039
Gartzain 580451
Oronotz-Mugaire 592024
Ituren 450183
Sunbilla.....450283
Goizueta 514067
Igantzi 637755
Arantza 634131
Bera..... 630929 / 630036
Etxalar.....635105
Urdazubi.....599130
ANBULATORIOAK
Irun 630264/621106
OSPITALEAK
Irungo ospitalea 614600
Nafarroako ospitalea..... 102100
SSko urgentzi zerbitzua 246750
Virgen del Camino
erresidentzia 109400
Gurutze Gorria 226404
ANBULANTZIAK
Oitz 450242/450342
DYA
Lesaka (larrialdiak).....(943) 464622
Doneztebe (larrialdiak).....171717
FUNERARIA
Lesaka.....637404
SUHILTZAILEAK
Oronotz-Mugaire 592044
GARRAIOAK
Bidasotarra 630279
Baztanesa 580129
Leitzaran 515018
HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:
Elizondo 580730
Lesaka 637154
Bera 630261
ABERIAK:
Iberduero 450335/450336

Botikak

Otsailaren 8-9an, Etxalar, Doneztebe eta F. Lezaun (Elizondo).

Otsailaren 15-16an Bera, Ituren eta F. Iturralde (Elizondo).

Dantzaldiak

ELIZONDO, otsailaren 9an DRINDOTS taldearekin.

ELIZONDO, otsailaren 16an JOXELU ANAIAK taldearekin.

Bestak

IÑAUTERIAK

ARANTZA, otsailaren 13, 14, 15 eta 16an. Ortzeguna eta ortziralean eskea baserriz-baserri. Larunbatean Mozorro Lehiaketa eta Gau-Pasa. Igande goizean, Arantzako Herri Kirol Taldearen presentazioa eta ikustaldia. Ondotik herri bazkaria Aterpe erretegian.

Deialdiak

LESAKA, otsailaren 7an Lesakako Euskara Batzordeen bilera.

IGANTZI, otsailaren 7an Igantziko Euskara Batzordeen bilera.

BERA, otsailaren 11an Berako Euskara Batzordearen bilera.

ETXALAR, otsailaren 12an Etxalarko Euskara Batzordearen bilera.

ARANTZA, otsailaren 13an Arantzako Euskara Batzordearen bilera eta otsailaren 20an Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Aholkularitza Batzordearen bilera.

Bota bertsoa

LUIS OLAETXEA
Gaia: Iñauteriak
Neurria: Hamarreko Haundia

Garai bateko kontuak orain
bertsoz nahi ttut adierazi
Francon garaian Iñauteriak
nola ziran galerazi
denbora hartako gaztiak hori
nola ez gendun merezi
baserritara bialtzen zituzten
guarda zibilak ta guzi
haik ikustian saskia utzita
joaten ginaden ihesi

Oso polita izaten bait da
Karnabalaren eguna
eskin batean kordion soinua
beste lekuan ttunttuna
tristiagoa izaten bait zan
guk gendun gaztetasuna
orain bertsotan esan behar det
erremediorik ez duna
alkate eta apaizen menian
guztia pasa genduna

AGENDA

Zinemak

DONEZTEBE

Otsailaren 8-9an, *"Matrimonio de conveniencia"*.

Otsailaren 15-16an, *"Agarralo como puedas 2 1/2"*.

LEITZA

Otsailaren 7an, gaueko 10,30etan *"Tacones lejanos"* (komedia).

Otsailaren 9an, arratsaldeko 4,30etan *"Wilow"*(abenturak) eta 7,30etan *"Tacones lejanos"* (kom.).

Otsailaren 14ean, gaueko 10,30etan, *"El silencio de los corderos"* (beldurrezkoa).

Otsailaren 16an, arratsaldeko 4,30etan *"El oso"* (abenturak) eta 7,30etan *"El silencio de los corderos"* (beldurrezkoa.).

Gastronomia

PIÑA NATURALAZ EGINDAKO SUFLEA

Osagaiak
4 lagunendako:
Kilo terdiko piña bat, 200 gr. vainilla-helatua, 6 arraultzeren xuringoa eta 4 likor Izarra-hori kopa.

Jose Gabriel Pikabeak emana
ZALAIN Jatetxea - BERA

Piña erditik puskatu eta barrenetik hustu. Ateratzen dena xerratu eta puxkak egin eta bi kopa likorrekin beratzen jarri 2 minutuz. Bitartean 6 xuringoak batitu "elur-puntuan". Piña puxkak berriro ere bi piña azaletan sartu eta gainetik helatua jarri. Manga batez bi pusketan arraultze xuringo batitua bota.

Guziaren gainetik azukre xehetua (glace) eman eta labe bero-beroan sartu. Behin doratutakoan bertze bi likor berotu kopak gainetik bota eta erre.

Baserriko feria

ZERRIKIA

•**Zerrikumea** (20 kilokoa): 6.400 pzta. **Zerri gizena** (95-100):177 pzta/kilo **Zerramak**: 85 -105 pzta./kilo bizirik.

BEHIKIA

•**Aretze gizenak**:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra.....540
1.koa.....500
2.koa.....460

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal
Extra.....550
1.koa.....520
2.koa.....460
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•**Behi zaharrak:**
Behi nabar gizena: 300 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 370 Pzta /Kg. Kanal.

•**Aretze ttikiak**
(15 egun inguru):
Nabarrak: urruxak 12.000 eta idixkoak 25.000 Pzta.
Mestizoak: urruxak 25.000 eta idixkoak 35.000 pzta

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa

MALDAERREKA S.A.
«La Suiza»
Aseguro mota guziak
Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA
PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK
Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoz garbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz!
Tfnoa: (948) 63 01 55 - BERA
BERA DESINFECCIONES

Diversey
Europako lehena ostalaritzarako garbiketa produktuetan
Tfnoa: (948) 63 01 55 BERA

11 galdera llabur

Kontxi Zozaia
Irakaslea Leitzako IKAn

Gizonak, matxistak ala beren burua modernotzat hartzen dutenak? Nahiz eta modernotzat hartu, matxistak izaten segitzen dute neurri haundi batean.

Lanean konstanteak neskak ala mutilak? Orokorrean emakumea kontanteago.

Ikasle "listilloak" ala langileak? Nereak langileak dira.

Euskal mundua, bizibidea ala bizimodua? Bizimodua.

Bizitza, antzerkia ala bizitzaren antzerkia? Berez bizitza antzerkia da, nahiago bizitzaren antzerkia egin.

Markako ardo ona ala zerbeza? Juergatan zerbeza limonakin.

Pelikula bat ala eguneroko errealitatea? Momentu bakoitzaren ariora.

Noizbehinkako martxa ala egunean egunerokoa? Noizbehinkakoa.

Gasteiz ala Leitza ? Leitza.

Leitzan bisitari ala bizilagun? Honez gero bizilagun.

IKAko jefeak ala AEKkoak? Bakoitza bere buruaren jefe.

Musika

Nevermind
Nirvana Taldea
1991 EEBB

Rock underground talde berri batek kendu dio Michael Jackson-i listetako lehen postua.

Kasualitatez edo musika mota berri itxuragatik ote den galdetzen dute disketxetako seilo haundiek.

Izan ere, ustegabeko gertaera honek guardian jarri ditu multinazionalak eta horrexegatik bereganatu nahi dute fenomeno berri hau.

Rock munduko hustasunaren kasualitatea dela diote bertze batzuek. "Nirvana" izeneko taldeko kideek diotenez, *"grabatzerakoan ez genuen itxaropen gehiegirik eta errutina batean grabatu genuen"*.

Nahiko ongi planifikatua zegoen salmenta eta imajina ongi neurtua, telebista kanal batek ere laguntza eskeini zien. Urrian diska ateri eta "Nevermin" albumaren bi milioi terdi kopia saldu dira Estatu Batuetan eta bertze milioi bat atzerrian; halere, zazpi milioi salduko direlakoan daude talde horretako marketing arduradunak.

"Nevermind"en musika, rock-punk bezala klasifika daiteke, nahiz eta rock alternatibo bezala bataiatu nahi izan duten disketxekoek –gehiago saltzeko asmoarekin, noski– .Estatu Batuetako Seattle hiritik dator taldea. 89an atera zuen lehen diska eta 40 mila kopia saldu zituzten orduan.

MARIANO

AFRO
REGGAE
ZOUK
ZAGIT
Taberna. JARAUTA, 98.
IRUÑEA. Tfnoa: 22 14 40

ZIZKA OSTATUA
Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

LORA DENDA
TXIRULA
Bittiria
LESAKA
Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza
Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESAKA

TXOKO
ERRETEGIA
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN
Tfnoa.: 45 04 91

Bortzirietan, trastu eta moble zaharren biltzea hilabetearen lehenbiziko ortzegunetan eginen da hemendik aintzinera. Orain arte biltze eguna hilabetearen lehenbiziko asteazkena bazen ere, hemendik aintzinera ortzegunetan eginen da. Horretarako, aipatutako gauzak zabor-ontzien ondoan utzi beharko dira bilketa egunaren aintzeko gauean. Argazkian, Bortzirietako zabortegia.

Iñauterietaz solasteko badugu aukera ederra inguruan. Bainan gehienek diotenez, «autentikoenak» Zubietakoak ditugu: Bertan, animali birikak, larruazalak, tripakiak, oteak, sasiak... denak balio du mozorrotzeko eta ongi pasatzeko.

Bortzirietan euskararen Udal Ordenantzak prestatzen ari da Euskara Mankomunitatea

David Anaut, Bortzirietako Euskara koordinatzailea

Azken hilabete honetan Bortzirietako Euskara Batzordeak, herriz herri, Euskararen Udal Ordenantzen borradorea ari dira eztabaidatzen. Aipatutako borradorean dauden kapituluen artean, bertzeak bertze, *Euskararen erabilpena Udalen barne funtzionamenduan, bertze erakunde administratibo, pribatu zein pertsona partikularrekiko harremanetan, erregistroetan eta udal-langileak egoera honetarako prestatzea* dira aipagarrienetariko zenbait.

Bertzalde, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak 1992rako prestatua duen aktibitate plangintza ere, herrietako Euskara Batzordeetan eztabaidatutakoan, Mankomunitatearen Batzorde Erabakikorraren esku, udal ordezkarien esku, alegia, gelditukо da definitiboki aprobatua utzi aintzinetik.

INFORMAZIOA:

- Nominak
- Aseguro Sozialak
- Lan-kontratu bonifikatuak
- Enpresa berrien sortzea
- Diru-laguntzak
- Errenta Deklarazioak
- Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
  Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
  Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

IRAKURLEAK MINTZO

JOSU GOIA ETXEBERRIA BERAKO HBko KONTZEJALARI

Gezurtia, ez. Ezjakina...baleike, zu "doktorea" ez zaren bezala. Urtarrilaren 9.ean 77. *TTIPI-TTAPA* zenbakian idatzi didazunari erantzun nahi diot. Argi eta garbi. Polemika gogorik sortu gabe. Hiru puntutan borobilduko dut dena:

1–Idazlari edo berri-emaile, korrespontsal batek, ez dauka "debekurik" non-nahiko gertakizunak aipatzeko edo idazteko. Ez naiz idazle, baina bai berri-emaile. Eskutaratzen zaizkit ere Udaletxetan erabakitzen diren akordioak. Ikustekorik ote du Berako batek Mugairez mintzatzea edo Oronozkoak Berako herriaz? Noski ezetz!

2–*Gezurtia* ...behar bada zerorri dei zintezke. Berako Udaletxeko EA taldeak Jose Luis Senperen bidez aurkeztutako higidura edo proposamena sei aldeko botuz onartua izan zela erran nuen, bost independienteen aurka, Urtxegik proposatu zuenaren aurka. Lau EAkoeri HBk lagunduz aintzina atera zela proposamen hura? Hori erratea nahi zenuen, Josu Goia "buru argitsu" horrek?. Sei botuz aintzina atera zela higidura hura, hori esatea Gezurtia eta Ezjakina izatea ahal da? Geroztik... gezurtero aunitz eta lelo gehiago behar dute izan bazterretan!

3– Gauzei beren izenez deitzeagatik EAren alde kanpaina egitea al da? HBk ez al du kanpainarik egiten karriketan oihuka ibiltzen direnean edo "pintadak" bazter guztietan jartzen dituztelarik? Mugaireko pertsona hau inoiz ikusi ez duzula ere diozu. Ba, bide zabal eta luzeetatik pasatutako abertzale bat nauzu eta zuk baino urte sail bat gehiago bizkarrean daramazkidana.

Agur bero batekin, nahi duzun arte, Josu Goia Etxeberria.

Jon Gortari Ugarte

L. Y.-RI

Aldizkari honetan, 78. zenbakian L.Y.k idatzitako eskutitzari erantzunez zenbait xehetasun azaldu nahi diogu:

- Pentsatzen dugu, zuk gure aurka azaldu zaren bezala, besteek ere eskubidea dutela, beraiek pentsatzen dutena azaltzeko eta suposatzen dugu arrazoiren bat izango dutela honelako jarrera eramateko, alkatearen aurka oihuak egiten zutenek.

- Mendiko suteari buruz, erran beharra dugu, guri behintzat ez zaigula axola alderdi bakoitzeko zenbat partaidek laguntzen duten eginbehar horretan. Uste dugu nahiko frogaturik dagoela honelako kasuetan herritarren elkartasuna, printzipio politikoen gainetik dagoela. Dena den, alkateak mangera lehenengoa hartu zuena diozu. Agian, horrela izanen da, han egon bait zinen, baina jakin beharko duzu mangera hori norbaitek prestatu beharko zuela eta ez badakizu ere "suhiltzaileen" burua HB-ko zinegotzi bat da. Gainera ez dugu uste zuk laguntza haundia emanen zenuenik, nor zegoen eta nor ez kontrolatzen ibili bazinen.

- "Espainiatik etorritakoak garela" diozu. HB barruan beste lurraldeetatik etorritako jendearekiko ez dugu inongo diskriminaziorik egiten, Euskal Herriaren alde lana egiteko asmoak badituzte. Esaten duzunaren arabera, "arrazista" xamarra zarela deritzogu, zeren eta oihuak edo protesta egiteko eskubidea, bertan jaiotakoei bakarrik ematen diezu.

Lesakako H. B.

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, yogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

EUSKALDUNA JATETXEA

Tfnoa.: 63 03 92

BERA

• Diskoak,
• Metodoak,
• Musika-Tresnak,
• HI-FI soinua,
• Soinu Profesionala,
• Ekipoen Alokairua...

"Bera" eta "Gure Txokoa" Ipuin Lehiaketen sariak banatu ziren Jamotenean Urtarrilaren 18an

ROMAN HARRIBILAGA

Urtarrilaren 18an banatu ziren "XX. Bera" eta "VI. Gure Txokoa" ipuin lehiaketen sariak Jamoteneako egoitzan. Maila guztien artean 182 lan aurkeztu dira Bortzirietatik bidaliak.

"XX. Bera" lehiaketan 9 urte arteko mailan Xabier Leitzaren *"Jina eta superpotxen 3 semeak"* lanarentzat izan da lehen saria. Aipamena, Izaskun Obesoren *"Pipen benda"*ri eman zaio. Biak 9 urte dituzte eta Lesakakoak dira.

Bertzalde, 10 eta 11 urteko mailan, *"Gaua bilatzen"* izan da irabazle, Saioa Ataunek idatzia, 11 urte ditu eta Berakoa da. Maila honetan bi aipamen eman ditu epaimahaiak, 11 urteko Asier Larrañagaren *"Lapurra"* ipuinari eta 10 urteko Mª Jesus Perugorriaren, *"Hartzak"*i.



Bera eta Gure Txokoa lehiaketen saridunak

Karlos Eltzaurdiaren omenezko monolitoaren plaka eta lauburua desagertu dira.

12 eta 16 urte artekoen mailan, Jon Irazoki 13 urteko beratarraren *"Arranoa"* izan da lehen saria. Azkenik, "VI. Gure Txokoa" lehiaketan epaimahaiak aipamen bat eman dio 17 urteko Jon Abril beratarraren *"Errugabe baten biziaren arrazoiak"* ipuinari.

Plaka eta lauburua kenduak

Karlos Eltzaurdia gogoratzen zuen monolitoaren lauburua eta plaka desagertu egin dira. Dirudienez, Urtarrilaren 11an burutu zen ekintza.

Motoak gogoko zituen 17 urteko gazte beratarra zen Karlos Eltzaurdia. Horietako baten gainean zoaielarik iazko uztailaren 13an, bizia galdu egin zuen.

Adiskidea gogoratzeko, oroitarria altxatzea erabaki zuten Karlosen lagunek. Horrela, azaroaren 1ean harri bat paratu zuten, burdinazko lauburua gainean eta bertsoak zeramatzan plaka.

Zinegotzi berria

Osasun arazoak direla eta, EAko zinegotzia zen Jose Ignacio Prietok bere dimisioa aurkeztu zuen urtarrilaren 13ko osoko bilkuran.

Agustin Portu izanen da ordekoa. 40 urte ditu Portuk, Lesakakoa sortzez, Beran bizi da eta Laminacionesen egiten du lan.

RADIO BIDASOA

expert

RADIO BIDASOAk errex jartzen dizkizu gauzak:

- Zure elektrogailua, TB, bideoa, etab, aukeratzen laguntzen zaitugu.
- Dohainik instalatu eta erabiltzen erakutsiko dizuegu.
- 3 urtetarako garantia
- Suterako eta lapurretaren aurkako asegurua.
- 36 hilabete bitarte dituzu ordaintzeko.

Kanttonberri 1, Tfnoa: 630377 - BERA

GRUPO ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

MANUEL LANTZ

KONTABILITATEA ETA AHOLKULARITZA FISKALA

Errenta deklarazioak, BEZ edo IVA deklarazioak, Kontabilitateak, e.a.

Eztegara 14, 1. - Tfnoa.: 63 11 08 - BERA

LESAKA

Lau egunetako itxialdia burutu zuten Laminacionesen LAB sindikatuko ordezkariek

AITOR AROZENA

Urtarrilaren 27an hasita, 31a arte itxialdia edo entzerrona burutu zuten Laminaciones-eko LAB sindikatuko bortz ordezkariek, "*Altos Hornos de Vizcayako Korporazioko buruzagiek kabezera ixteko asmotan emandako informazioak salatzeko eta informazioa ematerako orduan komiteak kontutan ez hartzeagatik*". Entzerrona, Enpresa Komitearen egoitzan burutu zuten, AHVko gainontzeko zentruetako LABeko delegatuek bezala.

Urtarrilaren 31an lantegi guztietako ordezkari sindikalek egin zuten bileraren ondotik erabakiko zuten entzerrona bukatutzat ematea edo Otsailaren 3a arte luzatzea, egun honetan eginen baitira enpresa komite desberdinen plenoak.

KARMELE

LABeko ordezkariak, Laminaciones-en entzerraturik egon ziren

Berako Udalak baimena...

...eman dio Lesakakoari, Nabaz, Katazpegi eta Alkaiaga auzora ura eramateko herri horretan egin beharreko obrei. Lesakako udalak, obren aurrekontuaren (2.251.300 pzta.) %3a ordaindu beharko dio aintzinetik Berakoari eta gauzak, aurkitu bezala utzi beharko dituzte ondoren.

Rafa Maritxalar, *19 urtetako korrikalaria Kluben arteko Nafarroako txapeldun suertatu zen urtarrilaren 19an Lakuntzan egindako laisterketan. Hilaren 2an, bakarkako txapelketan ere parte hartu zuen.*

ttipi-flash

❒ **San Anton** eguneko ohizko bestak ospatu ziren, Urtarrilaren 17an eta 19an. Igandean, eguraldi goibelak sobera lagundu ez bazuen ere, jende aunitz hurbildu zen ermita aldera.

❒ **Afizionatu** mailako txirrindulari taldea aterako du aurtengo denboraldian Beti Gazte elkarteak, Sicesal etxe komertzialarekin babesaz. Mendizale eta herri kirol taldea sortu nahiean ere ba omen dabil.

❒ **Koikili Fagoaga** eta bere zakurrak ditugu berriz aipagai, izan ere Urtarrilaren azken asteburuan Frantziako Le Deserte herrian Europa mailako trineo laisterketa baten parte hartu bait zuten.

❒ **Izotzaldea** auzora ura eramateko obren bigarren zatia «Gazmendi S.L.»ri adjudikatu zaio, 3.233.644 pezeten alde.

EROSLE
Tfnoa: 63 72 64 - LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

GOIZUETA
KIROLAK
Kirolak
Mendirako artikuluak
Beheko Plaza 10 LESAKA

KIXKUR
ILEAPAINDEGIA
Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA

XATURETXEA
FONDA
Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

ETXALAR

Baserrietako bideak konpontzeko laguntza lortu da

Bederen 21 baserritarako bideetan 50 kamioikada botako dira

PELLO APEZETXEA

Iraileko euritearen ondoriozko bideetako kalteak konpontzeko eskaerari, 1.500.000 emanez erantzun du Nafarroako Gobernuak. Diru hori kaskailu edo graba eta legarra bideetan botatzeko erabiliko du Udalak, 50 kamion denetara, kilometroko 2,5 kamion banatuz. Honako baserri hauetako bideetan, xeheki: Saroiberri, Tolareko Borda, Mendiondoko Borda, Pirutegia, Gorostipaleko Borda, Armitx, Oiarburua, Zumeldi, Goienetxegaraia, Katton, Juanperizeneko Borda, Etxegaraiko Borda, Marimigeleneko Borda, Murdeneko Borda, Mugerdi, Exkutu, Urtzalleneko Borda, Baztanen Borda, Matxineko Borda, Obene Borda, Maritoneko Borda, eta bide nagusia.

PELLO

Gauza ongi eginaren politasuna! Haizeuriak jotzen duenerako aterpea egin dute Urritzokietarrek haurrak autobusaren zain idorrean egoteko

Kirol-tresnak

Landagain Eskolako kirol zelairako, honako tresna hauek eman ditu Nafarroako Hezkuntz, Kultura eta Kirol Departamenduak: -futbolerako bi ate, zur azkartuzkoak, bere sare eta guzi; saskibaloi jokorako bi saski, metalezkoak eta sarez hornituak; tenis jokorako bi zutabe, bien arteko tinkatzaile edo tentsore eta sarea, guziak legeak agindutako neurritakoak; - eta azkenik, zurezko etxola, irristaleku eta zanguluarekin, 3-7 urtetako haurrentzat. Udalak eskatu zituen materiale horiek, duela hilabete batzu.

❒ **Iruñeko** Unibertsitateetarako garraioaz Gobernuak erantzun dio Udalari. Ikasturte honetarako Baztanesa bidez antolatu zelako eta, Bortziriak garraio gabe gelditu izanagatik, datorren urterako kontutan hartuko du Gobernuak herri hauetako ikaslegoa. Halako erantzuna eman dio Udalak burututako eskaerari.

EKAITZA CAFE
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
Lagunekin elkartzeko toki egokia
Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

JOHN DEERE
S. Semper
Nekazal Tresneria
Salmenta eta konponketa tailerra
Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN
BERAn, 631238Tfnoan, Agerra Industrialdean

ARRANO
OSTATUA
Legarrea – LESAKA

KOXKONTA
Sagardotegia
Erretegia
Laister Sagardotegia zabalik
Ezkontza, bataio, bileratarako leku egokia (200 pertsona)
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

ARRATZUBI
ardotegia
Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - LESAKA

IGANTZI

Manuel, orain dugun medikua Lesakara doaie

Nafarroa osoan ez omen dago, gainera, mediku euskaldun libre bakar bat ere

OSKAR TXOPERENA

Zurrumurrua harat eta zurrumurrua honat, aspalditik erratten ari zen jendea Manuel medikua joatekotan zegoela. Azkenean zurrumurrua gauzatu egin da eta badoaiela konfirma dezakegu. Orain bajarekin omen dago behatzen batetan mina hartuta, baina lanean hasten denean Lesakan hasiko omen da.

Udalekoek diotenez, arazo haundia sortu omen da Manuel joatearekin, ez baitago Nafarroa osoan mediku euskaldun libre bakar bat ere. Egoera berberean omen daude baita ere bertze herri euskaldun batzuk eta guztion artean Nafarroako gobernuarekin elkarrizketatuz ea zer lortzen duten saiatu behar omen dute. Zer ote dute herri ttiki hauek, sekretario, irakasle, mediku eta guztiak hemendik aldegin nahi izateko? Dena den, bidezkoa da Manueli eskerrak ematea hemen pasatu dituen urteengatik.

Artxiboa

Biltokiko Junta 9tik 12ra haunditzea ikusiko da asanbladan

Biltoki elkarteko urteko asanblada

Otsailaren 8an, arratseko 8,30etan izanen da Biltokiko urteko ohizko bilera orokorra.

Gaiak, gutti gora behera betikoak dira, baina bada gauza berririk ere: 1. Urteko kontuen aurkezpena. 2. Urteko aktibitateak. 3. Bazkideen baja eta sarrerak. 4. Junta haunditzeko proposamena. 5. Bertze kontuak. 6. Juntaren berritzea.

Zerbait aipatzekotan 4. puntua aipatuko genuke, proposamena interesgarria baita, hau da, junta 9tik 12 partaide arte haunditzea. Eguneroko elkarteko lanak (tesorero, rekuentoak, ostatua, etab...), kultur eta kirol komisioetatik pixka bat bereiztea omen da puntu hau sartzearen arrazoi nagusia, juntakoek diotenez.

ZALAIN JATETXEA
Eguneko menua eta karta
Martxotik aintzinera, boda eta banketeak ematen dira
Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA

Errekalde ostatua
Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak
Tfnoa: 630529 - BERA

BORTZIRI
Itzea 4, behea – BERA
Tfnoa: 63 10 91
* Asistentzia teknikoaren zerbitzua
* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
* Bakarkako, kolektibo edota satelite bidezko antenak ere paratzen ditugu

OSTATUA
JATETXEA
- Karta
- Eguneko menua
Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 LESAKA

ARANTZA

Zinko! Zinko! Mozorro zinko! Mozorrobeltz!

Iñauteriak 13, 14, 15 eta 16an izanen dira

JON LARRETXEA

Izenburuak harrituko zuen baten bat, batez ere gazteenak, bainan gure haurtzaroan hainbat aldiz oihukatua; oihu hau erabiltzen bait zen mozorro beltzak zirikatzeko. Arantzan bi mozorro mota izan oh dira: xuriz jazten direnak iñauteriak antolatu ohi dituzte, baserriz baserri diru eskean ibili, egitaraua prestatu eta abar eta mozorro beltzak, gaur egun galdutako ohitura baldin bada ere, baserriz baserri ibili ohi ziren haurrak asaltatu eta bildutakoa kenduz. Xuriek, antolatzaile eta onaren papera betetzen dute eta beltzak, gaixtoak, iñauteriei gatza eta piperra jartzen ziotenak.

Iazko Mozorro Zuri taldea

Iñauterien egitaraua

Hauxe da autengoz Mozorro Xuriek Herriko Etxearen laguntzaz prestatu dutena: *Ortzeguna* eta *ortziralean* baserriz baserri eskean akordeoiarekin. *Larunbatean*, 4etan Mozorro Lehiaketa eta 11etan Gau-pasa. *Igandean* Herri Kirol Jaialdia: Patziku Antsunekobordakoa bere marka hobetzen saiatuko da. Ondotik, bertako Herri Kirol taldearen presentazio eta ikustaldia. Bertze zenbait "sorpresa" ere omen daude prestatuak. Eguerdian herri-bazkaria Aterpen Peña eta Lizaso bertsolariekin.

Etxebizitza premiarik baden jakiteko

Udalak galdetegi edo inkesta bidaliko du etxetara. Horren arabera aztertuko luke laguntza ofizialeko etxebizitzak egiteko aukerak.

Sei kilo terdiko arbiburua

Ateri du Periko Ontsenbordakoak. Denak holakoak balira ez legoke neguan gose beldurrik

LAINO
HAUR JANTZIAK
OINETAKOAK
ETXERAKO ZAPATILAK
San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

BEINTZAko OSTATUA
Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA - LABAIEN

ETXEGARAI
BIDEO KLUBA
Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta banakakoak
Konponketa tailerra
Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

KIROLAK ZELA
Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98
BERA

BOAN TAILERRA
CITROEN Banatzailea
KOTXE BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - BERA

SAROBE
okindegia
SANDERS PENTSUAK
EZTEGARA 41, TFNOA: 63 08 99 - BERA

ALICIA
JANARIDENDA
Foruen Plaza 6, Tfnoa: 630799
BERA

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

SANTAMARIA
Jatetxea
Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

SARA

Sara - Santa Maria Poghju-ren arteko birezkatzea aipu

Bertzalde, bertsularien eguna izanen da otsailaren 16an

OLHAIN ELKARTEA

Duela 10 urte hasi zen Sara eta Korsikako herri baten arteko birezkatzea.

1982an, 60 bat lagun etorri ziren Santa Mariatik aste pasa gure artera Sarako besten karietara. 1983an aldiz saratarrak joan ziren Korsika aldera ekainean. 1985ean hamabortz bat gaztek egin zuten bidaia Santa Marirat.

Azken urte hauetan, birezkatze hunen arteko ospakizunak geldituak ziren eta azken hilabete hauetan bilkura batzu izan dira proiektu batzuen zutik emaiteko.

Zazpiak Bat dantza taldeak eta Rugby eskolak dute elgarrekin lehen asmoa beteko. Apirilaren 24etik maiatzaren lehena arte hirurogoi bat haur eta heldu joan beharrak dira bidaian. Denbora berean ordezkariek bertako jendeak gomitatuko dituzte behar bada Sararat aurtengo besten pasatzerat. Hola Saratarrak joanen litaizke heldu den urtean. Hauek denak galdera eta asmoak baizik ez badira ere, badu gizon eta emazte multzo batek elkartearen berritzeko gogoa eta hori laister iragan beharra da.

Meza Nagusia 6 bertsulari eta Sarako kantariekin izanen da.

Bertsularien Eguna

Otsailaren 16ean iraganen da Olhain elkarteak antolatuta Euskal Kultur Erakundearen laguntzarekin. 10,30tan meza nagusia bertsulariekin eta Sarako kantariekin. Eguerditan aperitifa trikitilariekin alaiturik. Oren batean, bazkari herrikoia Omordian. Lauetan bertsu saioa, Sarako haurrak bertsutan eta Arozena, Arzallus, Gorrotxategi, Mendiburu, Mendizabal eta Xanpun. Gai emaileak, Aña Mari Guruchet eta Ernest Alkhat.

Beraz, hitz-ordua finkaturik dago bertsozale guzientzat. Egun gozo baten pasatzen parada!

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanzazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

COMERLAU S.L.

HEZETASUNA... komertzio, biltegi edo almazen, etxebizitza, garaje etabarretan...
DANTHERM lehorgailu berriei esker, hezetasuna kontrolatu eta kentzea garantizatua dago.

ETXE BERRIETAN

DANTHERM lehorgailuen bitartez, etxe berrietako paretak, zolak eta tetxoen lehortze prozesua nabarmenki azkartzen da, gero, pintatu, parketa jarri edota bertzelakoak egin ahal izateko.

Salmenta eta alogera
Joaquin Beunza 10, Tfnoa: 13 15 27
IRUÑEA

SUNBILLA

Antolaketa ikusgarria aurten ere inaute-igandean

Ezkontz-elizkizuna, ETB-kantxa, arraza guzietako jendeak ...

Argazkiak: ZALDUA

PATXI PETRIRENA

ETB-kantxako kamara baino motelago eta txinoek paseatzen zuten turistaren argazki-makina baino traketsago ibili zen TTIPI-TTAPAko argazkilaria, nahiz eta saiatu, eta ZALDUAri esker egina da erreportai ttiki hau. Pena da gauza gehienak ezin atera izatea.

IBARROLA
HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA
Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - DONEZTEBE

AMEZTIA
Jatetxea
Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tf: 450028 - DONEZTEBE

ASKIN OSTATUA
Bokadillo eta Plater konbinatuak
Elizagibela, Tfnoa: 45 00 52 - DONEZTEBE

AMETS LIBURUAK
Liburu bildumen Banatzailea
Ikastola, eskola, elkarte, kultur etxeetako liburutegiak osatzeko behar diren bilduma guziak, prezio bereziekin
631267 tfnoan harremanetan jarri

DONEZTEBE

Doneztebeko DYAk behar bezala funtzionatzeko jende gehiago beharko luke

TXEMA ALDABE

Berriki jarria da martxan Doneztebeko DYA Elkartea eta bere zeregina karreterako ezbeharretan laguntza eskeintzea da, nagusiki. Momentu honetan 14 dire Donezteben dauden boluntarioak eta beren helburua egun guzitan eta ordu guzitan talde bat edozein ezbeharretara joateko prest edukitzea izanen zen. Halere, momentuz larunbata arratsaldeko 3etatik igande gaueko 12etara eta astegunez arratsaldetan egoteko haina jende dute. Egunero ordu guzitan egoteko, Juan Mª Telletxeak erran zigunez, gutienez 30 lagun beharko ziren. Horretarako kurtsilloren bat antolatzea izanen litzateke egokiena bere ustez, bainan Juan Marik dioenez, ekaina alderarte ez da posible izanen.



Laguntza Zerbitzu osoa eskeintzeko gutienez 30 lagun behar dira

ttipi-flash

❒ **Iñauterien** prestakuntzan ari dira jo eta fuego doneztebarrak. Hilabete honen 27, 28, 29 eta martxoaren 1ean izanen dira aurtengo iñauteriak eta badirudi bereziak izanen direla, jendearen partehartzea eta giroa ona bait dagoeneko.

❒ **Alkateari**, udal dedikazioarengatik, urteko 150.000 pztatako soldata egokituko zaio. Alkateordeari, berriz, 100.000 eta gainontzeko kontzejalei 50.000 pzta. bakoitzari.

SALDIAS

"Artzai Deia" aldizkariaren ale berria

Abenduaren bukaeran ateritakoa 129. zenbakia da

TXEMA ALDABE

Saldiasko erretore jaunaren ardurapean, joan den abenduaren bukaeran argitaratu zen "Artzai Deia" aldizkariaren 129. zenbakia. Bertso, eguberritako hainbat kantu, Saldiasen urtean gertatutako berri eta gora-beherak eta azken zatian, eskolako umeak egindako ipuin eta marrazkiez apaindua agertu zaigu oraingoan 20 orrialde dituen aldizkari hau, ia guzi guzia euskara goxo eta errax batean eskribitua gainera.

"Berriak" sailean, Elitxeko telefonoa, Udal berriaren aukeraketa, Herrian bi eskola eta bi andereño daudela aurtengoan, Joanekobordako Juanjoxe soldado dagoela, Saldiasen bi etxe berri egin direla, granjaren martxa ona, Zubizarreko zerrategia eta Saldiasko hiru gazte trikitixa eta panderoa ikasten ari direla aipatzen da.

Artzai Deia aldizkaria

Mari Cruz
LENTZERIA
Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

Zintitoare
ARROPAK
Merkealdiak
San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE

ITUREN - ZUBIETA

Animalien birika, tripaki, potro eta bestelako zatiak balio izan zuten iñotietako mozorroei usaia eta kolorea emateko

Ohizko joaldunei konpetentzia eginez edo, aurtengoan mozorroak izan ziren atentzioa gehien deitu zutenak Zubietan. Eta Mozorroen artean, birika eta tripakiz estaliak eta pixa eta kakaz betetako baldeekin ibili zirenak gehien.

Argazkiak: KARMELE

Bestelakoan, Ituren, Aurtitz eta Zubietako iñauteriak urteroko tradioaren arabera pasa ziren. Astelehenean, Zubieta eta Aurtizko joaldunak Iturenera egin zuten bisita. Asteartean zubietarrak izan ziren Iturengo eta Aurtizkoen ordaina hartu zutenak.

LEITZA

Koro Oreja, Aresoarrak, hartu du sendagile plaza

Bestalde, aurtengo ihoterietan izugarrizko animazioa bizitu da

Koro Oreja aresoarra izango da Leitzeko mediku berria

KARMELE argazkia

ANTTON ERKIZIA

Koro Oreja Buldain etorri da mediku Leitzeko Osasun-etxera.

Pedro Oviedok utzitako lekua, aldatuz joan diren medikuk bete izan dute oraintxe arte, eta hemendik aurrera plaza hori Korok hartzen du. Aste hontan bertan zen lanean hastekoa.

Koro Oreja ezaguna da gure artean: Aresoko alaba (Otxonekoa), Goizuetan izana da mediku, handik Lesakara joan zen, eta Lesakatik dator Leitzaldera. Bi emakume, Koro eta Arantxa Urtasun, gelditzen dira, medikuen bi plazak beteaz.

HBk juiziora sartu du alkatea...

...informazioa kontzejalei ez utzi nahi izateagatik. Aspaditxo zinegotziek, nola HBkoak, baita Independienteek ere, beren salaketa adierazi izan dute Udaletxean paperik eta liburuak ikusterik ez zutelako, baldin eta kasu bakoitzean Alkatearen baimena espresa ez bazuten. Galerazpen horren aurka azaldu ziren zinegotziek, baita EAkoek ere, Udal Batzarrean, eta debekua kentzeko erabakia hartu zen. Baina, dirudienez Alkateak berean segitu zuen, eta orain HBk tribunaletara deitu du.

Ihoterik 1992



Zinea betebetea, eta irriz leher, umorezko bertso saioan. Oso ona.

Ihoterik ziren, eta bertsolariek ere atxaurituak atera behar izan zuten jende aurrera eta gainera bakoitzak bere papera betez aritu. Eta nola aritu!

Puntu bat ez, puntazo bat IKA Euskaltegikoentzat.

Argazkiak: ANTTON



GOIZUETA

Goizueta - Hernani autobus linearen etorkizuna zalantzan

Dagoeneko zerbitzuak gutxitu dira

ESTEBAN AROZENA

Azkeneko asteotan Goizueta eta Hernani lotzen dituen Ceferino Albaren autobus lineak bere zerbitzuak gutxitu ditu, konkretuki, goizeko 11etan gure herritik ateratzen zena, eta eguerdiko 12,30etan Hernanitik Goizuetarantz abiatzen zena dira kendutakoak. Dirudienez, zerbitzuak gutxitze honen zergatia langile kopuruaren jetsieran dago, bi txoferretatik batek aldegin zuenetik hartutako neurria bait da hau.

Aipatu duguna garrantzi gehiegikoa ez badirudi ere, ekainetik aurrera arazo larriago batean bihur daiteke, dagoeneko segurutzat jo bait genezake C. Albak utzi egingo duela linea hilabete horretan. Gogoerazi behar da, jende arruntez gain 25 ikasle inguruk erabiltzen dutela egunero Goizueta eta Hernani arteko autobusa Gipuzkoako ikastetxeetara joateko, korreoaren zerbitzua ere berak eginez.

Asier Olaizola eta Xabier Berroetan 18 eta 14 irabazi zieten Buldain eta Iparragirre leitzarrei.

Berri onak pilotan

Gure herria goi mailako pilotariaz dagoenez, kirol honi buruzko informaziorik ez da falta izaten, eta gehienetan berri onak emateko. Oraingoan, Lekunberrin jokatu berria den Negu txapelketa dugu aipagai, lau goizuetarrek txapelak jazteko aukera izan bait zuten Larraungo herri horretan. Alebinetan, Aimar Olaizolak eta Iñaki Loiartek 18 eta 12 irabazi zuten; infantiletan, Jon Goizuetak 18 eta 9, Lainez lagun zuela; azkenik jubeniletan, Asier Olaizolak eta Xabier Berroetak 18 eta 14 irabazi zieten Buldain eta Iparragirre leitzarrei.

ARESO

JUANA MARI

Duela urte batzu hasi ziren festetan bi xexenekin sokamuturra egiten. Horietako bat ongi zaindu eta gizendutakoan, hilabete batzu barru hil egiten dute eta afari ederra antolatu herri guziarentzat Larrea Elkartean. Afari osoa xexenaren puxkez egiten da eta aurten 140 pertsona etorri ziren eta alaitzeko Lizaso zaharra eta Agirre egon ziren saio polita eginez. Trikitixa eta panderoak ere izan ziren.

❒ **Bukatu** dira eskolako obrak. Oso polita eta ederra gelditu da. Gurasoek beren umeekin eta anderoñoek inauguratu zuten, festa bat antolatuz.

❒ **Hasi** dire brea botatzen egiteko gelditzen zen pista bakarrean, beste guztiak aspaldiko urtetan asfaltatuak bait zeuden.

❒ **Aresoko** semea den Jesus Jabier Nieto Frantzian atxilotua izan dela eta, HBk mozio bat aurkeztu zuen. Alkateak plenoa konbokatu zuen urtarrilaren 30erako bainan plenoa hasi eta sekretariak "urgentea" zen galdetzerakoan, GIAkoek ez zela urgentea botatu zuten. Beraz, horretan gelditu zen.

BAZTAN

"Leader" izeneko proiektua martxan jartzen hasiak dire

Bizibide berriak jorratzen hasteko laguntzak kontutan hartzen omen dire bertan

JOSEBA IGARABIDE

Europa mailan nekazaritza munduan dauden gora behera haundien aintzinean, neurri berriak hartzen hasiak dira politikoak. Helburua, mendialdeko herriak bizirik irauneraztea litzateke. Hau da, bizibide berriak martxan jartzeko dirulaguntzak eta beharrezkoak diren informazio eta argibideak ematea.

Bide horretan, Nafarroako Gobernuaren arduraпean guzi honetaz arduratuko den organismoa martxan jarria dago. Bertan, mendialde honetan iharduten duten nekazal eta industria sindikatu, bertze mailako erakundeak eta udal ordezkariak sartuak daude.

Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubiren Udal ordezkari moduan, Baztango kontzejala den Pedro Perez Uriz kontzejala dago izendatua.

3.600 milioi pzta. daude presupuestatuak Leader proiektuaren barnean Nafarroako mendialde osorako.

Moble xaharrak errestauratzeko ikastaroa otsailaren 1ean hasi da ematen Arizkunenean. Apuntatzeko matrikulak 3 mila balio zuen.

Traktore akzidentean hil

Gan den urtarrilaren 30ean, arratsaldez, Amaiurko Eusebio Mujika Jauregi hila suertatu zen traktorearekin lanean ari zelarik. Itxura denez, traktorea irauli eta gainera erori zitzaion. Eusebiok 43 urte zituen.

ttipi-flash

❒ **Zigako** eliza moldatzeko, Artzobispadoak 1.763.184 pztatako dirulaguntza ematea erabaki du.

❒ **Aritzakun** aldean, hurrengo bi urtetan 94 milioi pztatako balioa izanen duten planta sartze eta hesiak eginen dira.

❒ **Haurtzaindegiko** haurrak zaintzeko, Baztango Udalak Teresa Oteiza eta Pilar Oiaregi kontratatu ditu sei hilabetetarako.

❒ **Zuraurre** auzorako ura kloratu ahal izateko, Udalak bi etxola eta kloratzeko tresna eman berri du. Lana auzolanean egin beharko da.

❒ **Amaiurren** "Erdikobide" izeneko bidean eroritako lurra kentzeko ardura Balleko Etxeak hartuko du bere gain. Bertzalde, pilotalekuan hiru argi-foku ere jarriko ditu Balleko Etxeak.

❒ **Baztan**, Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietan industriaren egoera larria dela eta HBk Balleko Etxean sartutako mozioa onartu egin zen aho batez.

ERLOJU eta BITXI DENDA
ARRIETA
KIROL TROFEOAK
Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO

IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO
Iñauterietarako teletan aukera zabala

ZUGARRAMURDI

Elizaren itxura konpontzeko presupuestoa 6 milioiekoa da

"Principe de Viana" eta Arzobispadoak lagunduko dute obrak ordaintzen

MARGARI eta KORO

Don Javierrek, herriko apezak aurkeztu ditu elizako kontuak, eta guti gora behera 500.000 pezeta bildu direla jakinarazi du. Diru hunetatik gastu guztiak ekenduz 300.000 pastuxeak gelditu dire; explikatu nahi izan du bazegoela diru hori non enpleatu, baitire elizan mila gauza txiki konpontzeko (sakristia, e. a.) bainan azkeneko urte hauetan ahal bezain bat aurreztu nahi izan da elizako itxura barne eta kanpotik konpontzeko. Horrendako egin den presupuestoa 6 milioitakoa izan da (paretak pintatu eta dorrearen itaxurak arrimatu). Obra hau egiteko "Principe de Viana"k %30a ordainduko duela errana du eta Arzobispadoak ere 600.000 pztekin lagunduko duela; gero, erran dugun bezala, Elizak berak urtetik urtera aurreztu duenarekin 2 milioitara hurbiltzen da. Oraindik dirua faltan dago bainan handik edo hemendik aterako den konfiantzan utzi du. Obra hauen arduraduna apeza izanen da, baina berak eskertuko zuen herritar komisioa osatzea, denen artean gauzak ados egiteko.

IPARLA KIROLAK
• Kirolak orokorki
• Ekipamenduak eta trofeoak
Santiago 51 - Tfa: 58 05 85
ELIZONDO

ESTHER
LORADENDA
Eskakizunak garaiz egitea gomendatzen dugu
Bergara auzoa, 580971-ARIZKUN

OSKORRI
LIBURUDENDA
Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa
Tfnoa.: 58 01 55 – Santiago 40
ELIZONDO
Eta orain, zure koloretako argazkiak ORDU BATEZ ERREBELATUAK ditugu

JATETXEA
Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

ARROPA DENDA
MERCERIA FANTXIKE
JAIME URRUTIA, 24
TFNO. 580312
ELIZONDO

CERVANTES
HELVETIA SEGUROS
Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

FZ
FOTO ZALDUA
Argazkiak, Bideoa, Markoak
Instalakuntza berriekin, roiloen errebelatzea "ordu bat" baino gutiagoan egiteko aukera, «Fuji» kalitatearekin
Elizondo Tf: 58 04 91
Doneztebe Tf: 45 03 64

BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia
121 errepide nazionala, 54. km
Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA
• Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
• Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon
• Haritz eta gerezi egurretan egindakoak

URDAZUBI

Dantxarineako muga gauez ere zabalik

Bertzalde, Baztanen bezala, etxean ezinduak daudenei lagunduko zaie

ALIZIA OLAIZOLA

Urtarrilaren lehenetik hasi ziren muga arratsetan ez ixten. Orain arte arratseko 10etan ixten zen eta orain egun osoan muga edekia dago.

Ailegatu zen elurra

Aspaldi hontan ez zuen elurra egina gure herrian, zazpi urtedanik. Joan den urtean pixka bat eginik pasatu zen negua, aurten haize gehiago egin du. ez du aunitz prolemik eman elurra laister urtu bait zen eta egun batez bakarrik izan ginuen elurra, urtarrilaren 23an.

Ezinduei etxean lagunduko zaie

Baztango Giza Laguntzarako Serbitzuaren antolakuntzarekin, Urdazubi eta Zugarramurdin, etxean ezinduak daudenei lagundu eginen zaie hemendik aintzinerat. Horretan ariko den emakumea Concepción Arburua izanen da eta momentuz, bi herrien artean, 6 etxek eskatu dute lagunduak izaitea.

Landibarko auzoa elurra egin zuenean

Eztaiak eta bataioa batean

Urtarrilaren 18an, larunbatarekin, goizeko 11,30etan eztaiak eta bataioa izan ziren Urdazubin, guardia baten eztaia eta beren haurraren bataioa.

❒ **Orain** dela guti aipatu ginuen herriko apaizak 63 urte zituela hemen apaiz zegoela. Ez da hala. 50 urte beteko ditu aurten hemen dagoela.

G.M.G. GAMARGA S.A.
MARMOLAK, GRANITOAK, HAREARRIAK
121 errepide nazionala, Oharrizko bide-gurutzea
Tfnoa.: (948) 58 05 43 IRURITA
✔ Sukalde eta komunetarako entzimerak
✔ Etxe aintzinaldeak eta pieza ttikiak orohar
✔ Kanposantutarako lanak (Hilarriak...)

Beatriz Lurrindenda
Garantia osoko produktuak aurkituko dituzu
Perfumeak, Kosmetikoak, Bitxiak, Poltsoak, Oparitzeko artikuluak
Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO

ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA
Zure publizitatea **15 egunero 4.900 etxetara** zabaldu nahi baduzu, deitu 631188ra

EZKONTZAK

Pedro Jose Gallardon Iribarren eta **Natividad Eugi Arretxea,** Etxalar eta Iruritakoa, urtarrilaren 11an.

Juan Angel Mutuberria Oteiza eta **Margarita Iturralde Ozkariz**, Ituren eta Etxalarkoa, urtarrilaren 25ean.

JAIOTZAK

Gorka Aldako Arretxea, Elizondon, urtarrilaren 3an.

Mikel Rekarte Oskariz, Arizkunen, abenduaren 29an.

Amets Albertoz Iturralde, Elizondon, urtarrilaren 8an.

Ander Olaizola Etxegarai, Lesakan, urtarrilaren 9an.

Beñat Oronoz Inda, Lesakan, urtarrilaren 17an.

Blanca Satrustegi Altzugarai, Lesakan, urtarrilaren 23an.

Adur Saizar Ardanuy, Leitzan, irailaren 6an.

Mikel Grazenea Urrutia, Donezteben, urtarrilaren 19an.

Ainhoa Zelaieta Lazkano, Beran, abenduaren 20an.

Maddalen Jimenez de Andres, Beran, urtarrilaren 10ean.

HERIOTZAK

Maxima Barrena Larramendi, Elizondon, urtarrilaren 1ean, 77 urte.

Sabina Antxorena Plaza, Arizkunen, urtarrilaren 9an, 90 urte.

Fca. Mariezkurrena Oiartzun, Elizondon, urtarrilaren 9an, 92 urte.

Domingo Salaberria, Goizuetan, Urtarrilaren 10ean.

Juliana Untxalo, Goizuetan, Urtarrilaren 14ean.

Antonio Mª Iturria Etxeberria, Lesakan, urtarrilaren 24ean, 81 urte.

Josefa Berasategi Aranburu, Beran, urtarrilaren 23an, 85 urte.

Prudencio Arburua Sanzberro, Beran, Urtarrilaren 24ean, 82 urte.

Miguel Saharrea Alizegi, Iruritan, urtarrilaren 19an.

Ignacio Iriarte Gainza, Arizkunen, urtarrilaren 23an.

Antonio Rosano Cosme, Elizondon, urtarrilaren 27an.

Juana Martina Aleman Igoa, Elizondon, urtarrilaren 28an



ERAKUSKETA:
BEREAU ETXEA
LESAKA NAFARROA
Telf: (948) 637266

BORTZIRI

«UNSION ANAIAK»

SUKALDERAKO ALTZARIAK

Maiteminduen egunerako: loreak oparitu nahi badizkiozu...

AZALEA

Loradenda

Altzate 26, Tfnoa: 63 11 21 - **BERA**

Komunal edo herri-lurren auzia oraindik moldatu gabe dago ia-ia herri gehienetan

Igantzi izan da azkenaldiotan, afera behin betikoz moldatu duen lehen herria

Kontu honetan herri batetik bertzera historia eta problematika diferenteak baldin badira ere, batzutan intentsitate gehiago eta bertzetan gutiagorekin, ia-ia denetan oraindik arras moldatu gabeko auzia da komunalena. Izan ere, Igantzi da Nafarroa mailan –duela 6 urte Komunalen Legea atera zenetik– partikular eta herriaren arteko konbenioa egin eta Nafarroako Gobernuak definitiboki onartu duen lehen herria.

Horrexegatik preziski, neurri batean bederen, Igantzikoa, berez, modeloa ere bihurtu da inguruko bertze herrientzat. Eta Igantzin segitutako lan-prozesuaren xehetasunetaz jabetzeko Igantziko alkatearengana jo dugu eta berak azaldu dizkigu hainbat eta hainbat xehetasun Gure ustez garrantzitsuenak, segidan bildu ditugunak.



J.J.Txoperena: *«Gertatutako guziaren ondotik, den-denak firmatu zuten konbenioa 5ek ez ezik»*

Komunalen egoera eskualde mailan

Bidasoa-Leitzaldea aldeko ia herri gehienetan egoera berdintsuan aurkitzen da momentu hauetan komunalen egoera. Alde batetik, plazoaren barne edo kanpo, herri guztiak eginak dituzte –tramite formaltzat joak diren Komunalen ordenantzak– legeak eskatzen zuen bezala.

Bertzalde, momentuz partikular eta Udal-administrazioaren arteko konbenioa, azkeneko legearen arabera onartua duen herri bakarra Igantzi da. Katastroa egitea falta orain.

Beran, 1930. urte inguruan onartu zuten konbenioa dago indarrean orain. Arantzan oraintsu ari dira berritzen. Etxalar eta Lesakan ez dira oraindik hasi.

Malerrekan, Ituren, Donamaria eta Bertizaranan ari dituzte egiten, nahikoa lanekin, dirudienez. Bertzetan, guk dakigunez, ez dira oraindik hasi.

Baztanen ukitu gabea.

Leitzan egiten hasiak omen dira. Goizuetan 1965az geroztik geldirik eta Aranon konbenioa egina eta eskrituratu faltan.

Igantziko modeloa

"Duela urte bat pasatuxe Udala eta partikularren arteko konbenioa 122 partikularretik 117k izenpetu zuten arte, hiru katastro egin izan dira" dio Juan J. Txoperena Igantziko alkateak. *"Nolanahi ere, Diputazioak baimendu eta erregistrotik pasatutako lehen katastroa 1958koa izan zen. Honetan belagiak ez bertze, dena komunala bezala sartu zen eta aldiberean, zenbait belagi, betidanik herriarenak ezagutu zirenak, partikular bezala sartu ziren azken katastro honetan"* gaineratzen du Txoperenak, gauzak orduan ere behar bezala egin ez zirela agertu nahirik.



«Interferentzia politikoak izugarri nahasten dute arazoa garbitzea»

Halere, Igantziko kasuan bederen, lehen udal demokratikoak hautatu ondotik hasi ziren tirabirak indartzen, eta azkenean, iskanbilen artean, bi lege-gizon hartu zituen Udalak asuntoak behingoz garbitzeko. Lege gizon hauen egitekoa Igantziko lur guzien «historiala» egitea izan zen. Horretarako, alde batetik partikularren eskriturak eta bertzetik Herriko Etxeko dokumentu publiko zaharrak begiratu beharra izan zuten. Horrela, lege-gizon hauek lureremu bakoitzaz informe juridiko bat egin zuten, ondotik, ahalik eta informazio guzia eskuartean izanez azken hitza emateko: hau komunala da, bertze hau, berriz, partikularra... eta horrela guziekin. Azkenean, partikularrenak ateratzen zirenak planoaren gainean markatu eta beren egiazko neurriak behingoz argitzea izan zen egitekoa.

"Orain, konbenioa ia den-denak firmatua dutenean, lurren katastroa azken zuzenketak egitea baino ez zaigu falta" azaldu zuen Juan Jose Txoperena, Igantziko alkateak.

Konbenioaren nondik norakoak

"Artxiboetatik informazio gehiago ateratzea izan zen lehena" dio Igantziko alkateak, *"zenbait dokumentu publikotan argi ikusten baita orain dela 200 edo 250 urte Herriak partikularrari erabiltzeko deretxoa uzten ziola baina argi erranez propiedadia beti Herriak errespetatzen zuela"*. Horrela, *"partikular bezala ateratzen zirenak, argi zegoen, ...ezta!, bainan komunal bezala ateratzen zirenetan determinatu beharra zegoen ze portzentaje eman partikularrei, konbenioari begira beti ere. Batzuren ustez erdia edo gehientsuena partikularren esku utzi beharra zegoen. Azkenean legeak dioenaren arabera, lautik bateko proportzioa behar da aplikatu. Igantzin, 10 Ha. arte 4tik 1 ematen genien, hau da 2 Ha. terdi partikularrentzat eta 7,5 herriarentzat. 10 Ha.tik 25 Ha. bitartekoetan 5tik 1. Hau da, zenbat eta eremu haundiagoa izan orduan eta eremu haundiagoa gorde zuen herriak beretzat"*.

Lurren markatzea

Lege-gizonek ikusitako dokumentuen arabera lur bakoitza partikularra edo herriarena dela argitutakoan, prozesuaren azken fasera pasatzen da; hau da, partikularra, Herriko eta Diputazioko ordezkarien presentzian lur zati bakoitza markatzea eta mugarriztatzea. *"Komunala kontzentratzen saiatu gara baina «en printzipio» partikularrari utzi zaio berari komeni zaion tokia aukeratzea, kasu bakar batzu kenduta. Normalean, komunala herriko lekurik urrunenetan kontzentratu da eta partikularra berriz, herritik lekurik hurbilenetan"* zehaztu digu alkateak.

Testua: J.M. IRIGOIEN
Arg.: Aitor AROZENA

Elena Urtasun: *"Mila kontsultatik goiti egin zizkiguten joan den urtean Baztanen"*

Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko «asistente soziala»rekin solasean

24 urtetako Elizondotarra da Elena Urtasun. Iruñean hiru urtez ikasketak egin ondoren, duela bi urte t'erditik honat Baztango «asistente soziala» edo giza laguntzailea da. Iaztik, Nafarroako Gobernuarekin sinaturiko kontzertu soziala dela medio, Zugarramurdi eta Urdazubiko giza arazoetaz ere arduratzen da. Zerbitzu honen xehetasunen berri izateko Elizondoko bere bulegora hurbildu gara.

Nahiz eta Elena Urtasunek bi urte t'erdi daramazkin «asistenta sozial» bezala, 1987an sortu zen zerbitzu hau Baztanen eta Elenaren ustez "*arrunt normala bezala ikusten da gaur egun zerbitzu hau Baztanen; jendea inolako problemarik eta lotsarik gabe etortzen da galdetzera, kontsultak egitera, informatzera...*". Izan ere, giza laguntzailearen lehen betebeharra informazioa eskeintzea da.

"*Informazioa adintuentzat, elbarri edo ezinduentzat, baita gazteentzat dauden zerbitzuak, behartutako haurrentzat laguntzak, papeleoa egiten lagundu, Insalud, Seguritate Soziala, Nafarroako Gobernua eta gainontzeko erakundeekiko harremanetan lagundu... dira programa orokorrean sartzen diren lanak*".

> *"Emakumeak dira gehien etortzen direnak, nahiz eta ez beraien arazoa izan: senarraren edo etxekoen arazoaz galdezka datoz"*

Honetaz gain, eta programa orokorretik kanpo, badaude zerbitzu bereziak, bertzeak bertze, etxetarako zerbitzua edo «servicio a domicilio», haurren ani-

"18 urtetik behitikoentzat tailer okupazional bat egiteko proiektua nahiko aintzineratua dugu, ANFAS-ekin batera."

Etxetarako zerbitzuan, 3 emakume Baztanen eta bertze bat Urdazubi eta Zugarramurdin aritzen dira

mazioa edo berriki martxan paratu den ludoteka.

"Zehazki, etxetarako zerbitzuan 3 emakume ari dira lanean egun osoz Baztanen eta bertze bat Urdazubi eta Zugarramurdin. Baztanen 17 etxetara zabaltzen da zerbitzu hau eta bertze 6 etxek eskatu dute Urdazubi eta Zugarramurdin. Ludoteka, berriz, duela guti hasi da martxan eta bi neska gazte ari dira bertan lanean".

1.173 kontsulta iazkoan

Elena Urtasunek berriki egin duen memoriaren arabera, 1.173 kontsulta egin ziren iaz Baztango Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan. *"Arloetan banatuz gero, hauetatik gehienak adintuenak izan ziren, hirutatik bat inguru. Adintuen problematikaren barnean, kontsulta gehienak erresidentziarako ingresoa tramitatzeko izan dira. Nahiz eta batzuk zuzenean sartzen diren, normalean «lista de espera» batean esperatu behar dute.*

Ondoren familietako arazoak etorriko lirateke (% 26a).

Gutien etortzen direnak, berriz, dudarik gabe, gazteak dira, % 2a inguru. Hauek nahiago dute zuzenean alkatearengana joan lokalak edo bertze gauzak eskatzera. Niregana, guttitan etortzen dira, normalean soldaduskatik libratzeko edota horrelako gauzetaz informatzeko".

Kontsultatzera etortzen den jendearen sexuari buruz, ez du inolako dudarik Baztango giza laguntzaileak. *"Emakumeak dira gehien etortzen direnak, nahiz eta ez beraien arazoa izan. Senarraren edo senideren baten arazoaz galdezka etortzen dira. Eta gizonezkoak etortzen badira, batzutan nik baino gehiago dakitela uste dute".*

Elena Urtasunen ustez *"bertze arazo larria alkoholarena da, baina honetaz Osasun Mentalekoak arduratzen dira. Hala ere guti etortzen dira, ez bait da errexa alkoholikoa zarela onartzea. Kasu «extremoak» bakarrik hurbiltzen dira edo ekartzen ditugu".*

Proiektu garrantzitsuak

Etorkizunerako proiektuei dagokienez, *"tailer okupazional bat egiteko proiektua dugu ANFAS-ekin batera 18 urtetik behitikoentzat, Poxkonean ezin baitira sartu adin hori bete arte".* Bertzalde, iaz proiektua egin eta aurten martxan paratu den ludotekan, *"joko, pelikulak, antzerkiak eta hauetaz gain, «mozorroaren txokoa» eta bertze gauza berriak sartu nahi dute bertan ari diren bi neskak".*

Azkenik, *"«La juventud con Europa» programan sartzeko prestatu nahi dugu. Taldeka antolatu eta bidaiak egiteko aukera dago, % 60aren subentzioarekin. Interkanbioa egiten da bertze herrialdeetako gazteekin eta horretarako proiektuak aurkeztu behar dira Maiatza baino lehen. Ni neu Galesera joan nintzen iaz 10 egunez".*

Testua: AITOR AROZENA
Arg.: J.MANUEL IRIGOIEN

Denboraldi erdia pasatutakoan, arras egoera ezberdinetan daude eskualdeko futbol taldeak

Lesakako Beti Gazte 18. postuan dago (20 talderen artean) Gipuzkoako Preferente mailan: 19 partidutan, 11 puntu atera ditu (4 partidu irabazi, 3 berdindu eta 13 galdu)13 gol sartu eta 44 hartu. Egoera penagarria, beraz.

Berako Gure Txokoa 15. postuan dago (19 talderen artean) Gipuzkoako Erregionaleko 1. mailan: 18 partidutan, 14 puntu atera ditu (5 partidu irabazi, 4 berdindu eta 9 galdu)19 gol sartu eta 36 hartu. Hauek ere zulotik atera nahi eta ezin.

Lehen itzuliko
BALANTZEA



Leitzako Aurrera 6. postuan dago (19 talderen artean) Nafarroako Erregionaleko 1. mailan: 18 partidutan, 22 puntu atera ditu (9 partidu irabazi, 4 berdindu eta 5 galdu)59 gol sartu eta 27 hartu. Oraindik mailaz igotzeko itxaropenarekin dabiltza.

Baztan taldea 2. postuan dago (20 talderen artean) Nafarroako Preferente mailan: 19 partidutan, 25 puntu atera ditu (11 partidu irabazi, 3 berdindu eta 5 galdu)36 gol sartu eta 15 hartu. Berriz ere 3. mailara igotzeko asmoari gogor eutsiz daude.

Nafarroako Kirol Jokoetan apuntatzeko epea irekia

Hilaren 23an bukatuko da

Nafarroako Herri Kirol Federazioak, Nafarroako Kirol Jokoetan apuntatzeko epea hilaren 23an bukatzen dela jakinarazi du. Bertan, infantil eta kadete mailako neska mutikoak parte har dezakete.

Aurtengo lehen herri kirol ekitaldi honetako kanporaketak Martxoaren lehen egunean hasi eta Apirilaren 5a arte luzatuko dira, herri ezberdinetan eginen direlarik.

Finala berriz, Irurtzunen burutuko da, Apirilaren 12an.

Gogoratu behar da, iazkoan sunbildarrak eta beratarrak izan genituela nagusi alebin mailan eta Ultzamako taldea infantiletan.

Pilota



Baztango Emakumeendako I. Pilota Goma txapelketa burutuko da otsaila eta martxoa bitartean. Apuntatzeko epea bukatu denean, 7-8 bikote apuntatu dire. Otsaila erdian hasi eta hilabete batez jokatuko dute, Elizondo, Almandoz eta Erratzuko frontoietan.

Doneztebeko Erreka saskibaloi taldekoak ongi ari dira aurten

Eskualdeko talde bakarra da kirol hontan

Doneztebeko Erreka emakumezkoen saskibaloi taldea laugarren postuan dago gaur egun Nafarroako senior bigarren mailan. Kontutan hartu behar da kirol hau praktikatzen duen eskualdeko talde bakarra dela, federatu mailan behinipein eta hiru urte daramatza. Jose Juan Gonzalez, Txema Larraza eta Poti Rekarteren laguntzaz honako neska hauek ari dira: Itziar Zelaieta, Ana Zelaieta, Itziar Irigoien, Idoia Irigoien, Idoia Irisarri, Alicia del Castillo, Marta Indart, Sara Elizondo, Itziar Martin eta Nekane Orbegozo.

Hamabostaldiko jokaldiak

Arantzako Herri kirol taldea.

Hilaren 16ean (igandean) eginen dute presentazioa eta ikustaldia, herriko Iñauteriak direla probextuz. Hainbertzeko zaletasuna dagoen herri hontan ezin zen faltatu.

Hamabostaldiko jokaldiak idazten dugunok.

78. zenbakian agertutako jokaldirik txarrena (eskiatzera kilo soberakin joaten direnak) ez da denen gustokoa izan eta eskutitz bat ere jaso dugu horri buruz. Barkamenak.

MERKATU TTIKIA

Etxebizitzak

• **90 m²ko** pisua salgai Arraiotzen. 3 logela, egongela, jangela, sukaldea, bainua, trasteleku, ganbara, propano kalefakzioa eta baratzarekin, 6.800.000 pztatan. Tfa: 630016.

• **Lesakan,** lokalak alokatzen ditugu Erosle ondoan. 637404 Maldaerreka S.A.

• **Etxalar, Zugarramurdi** aldean baserria alokatu nahi nuke (mendian isolatu). Geroago erosteko asmoarekin. Bitartekaririk gabe. 943-616072 (4,30-8) Imanol.

Lana

• **Haurrak** zaintzen edota etxeko lanetan egingo nuke lana goizez, ahal bada, Beran edo Lesakan. Haurrekin esperientzia badut. Deitu 637911 tfnora eguerditan (Edurne).

Denetarik

• **Ekipoak** alokatzen dira udalentzat, bertsolarientzat, mitinetarako, etabar. Laia musika dendara deitu. 631059.

• **Lesakan** nahi duenak ostatu - erretegi bat errentan hartu, dei dezala zenbaki honetara: 637158.

• **Lesakan** erloju bat galdu nuen Eguberri egunean. Atzekaldean J.M. Baraibar jartzen du. Aurkitu baldin baduzue, mesedez deitu 637058 tfora.

• **4 ardizakurkume** ematen dira.. Ederrak eta politak. Tfnoa: 63 07 36.

• **Lesakan** lokal bat traspasatzen da. Deitu 10tik 1etara eta 5etik 8etara 637410 tfnora.

Salerosketak

• **Balay** labadora eta bago eta kristalez egindako mahai bajua salgai. Tfnoa: 581034 (Zuraurre).

• **3 urtetako zezen** gorria salgai. Tfa: 599114 (Urdazubi, arratseko 10etatik aintzina)

• **Karrera** bizikleta eta mobileta salgai. Bakoitza 25.000 pztatan. Tfnoa: 637786 (Iñigo Etxepare).

• **Volkswagen Polo** Classic NA-U egoera onean saltzen dut. Tfnoa: 58 00 40 (Elizondo).

• **Katakume** siames emea salgai. 15.000 pzta. Tfa: 610794 (ilunabarrak).

• **Etxeko** izar txiki horrentzat seaska portatil eta motxila salgai. Merkeak. Tfa: 610794 (ilunabarrak).

• **Oliveti** idazmakina elektrikoa, memoria eta guzi prezio onean salgai. Tfa: 610794 (ilunabarrak).

• **Gutti** erabilitako Ciclone gitarra eta Caiman anplifikadorea salgai 40.000 pztatan. Interesatuak 637948 tfnora deitu (eguerdian 1,30ak aldera).

• **Bi kotxe** mandoekin gidatuak; bat gasolinazkoa eta bestea bateriakin salgai. Beste ekipo guztiarekin. Gutxi erabiliak eta prezio onean. Tfnoa: 627503 (gauetan).

• **220 litrotako** esne tankea (Hapy markakoa) salgai. Tfnoa: 615043.

Harremanak

• **Leitzako** Maitane Amorenarentzat: Zorionak zure urtebetetzeagatik eta ea 13 urteotan beti bezain altua segitzen duzun. Rakel Erbiti eta Itxaro Sagastibeltza.

•**Urdazubiko** Fernando, Beatriz eta Itziar Galarregiri, urtarrilaren 30, 31 eta Otsaileko 3aren partez, zorionak. Ongi pasa. Kuadrilako lagunak.

• **Lesakako** Karmele Rekondori: Zure urtebetetze egunean, zoriondu nahi zaitugu. Bi muxu. Zorionak!!! E. eta A.

• **Elizondoko** Txarliarentzat: Ez zait atzenduko erromeroren eta belartzuteren usain gozoak. Beraien usaiak ez daude oraindik akituek. Zure konpa.

• **Goizuetako** Elirentzat: Zorionak zure hamaseigarren urtebetetze horretan. Egun hori ongi ospatuko dugula ziurtatzen dizut (beranduago bada ere). Ongi ezagutzen duzun lagun baten partetik.

• **Leitzako** Maitane Amorenari, bere zorionetako eguna ongi pasa dezala. E. A.

•**Urdazubiko** Begoñarentzat, zorionak zure urtebetetzearengandik eta aber konbidatzen gaituzun txanpan piskat edatera. Urdazubiko Arantxa, Izaskun, Edurne eta Miren.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: .....

ttipi-ttapa
Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK .....

HELBIDEA .....

HERRIA .....

ttipi-ttapa
Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

DENBORAPASA

			Sakramentu kristaua		Jaurtigaia / Seta		Idi, hitz elkar.		Zigarra
			Galegoak, adibidez / Idazteko tresna						
							Musika nota / Asiako Estatua		
		Hesiz / inguratu	Lehen eta azkenekoa / Bat			Zezen zikiratu / Iridioa			
					Gipuzkoako hiria / Nekatu				
Musika nota / Ikusten ez dutenak			Ibarra / Likido edangarria						
						Gure autoetan / Lehen bokalak			
Ukimendua / Sagu artea							Modu atzizkia / Sail		
								Nitrogenoa / Bokala	
Pare bat	Uranioa / Iaz		Urrea / Barre			Bi gehi bi / (Her.) Ezak			
		Iparre-tarrak / Gipuzkoako herria			(Errep.) Txori mota / Egunaren parte ilun			500 / Erraten du	
Su				Herri nafarra / Alde!					
							Kasik / Kontso-nantea		
Zauzka						Bizk. / Duk			

Gure Iñauteetako zenbait pertsonaia

ENBIDO

AMAIUR

sukalde eta
bainu
altzariak

Rosa Seminario 13
Tfnoa.: (948) 45 04 00
DONEZTEBE

Vegasa®

ALMACENES ETXANIZ, S.A.

Lesakako Iturria anaiak



ZURE BAINUA ALDATZEA PENTSATZEN BADUZU ZATOZ GUREGANA:

MOBLEAK, ISPILUAK, GRIFERIAK, MANPARAK ETA BEHAR DITUZUN OSAGARRI GUZIAK DITUZU

Juan Arana, 3
Tfnoa: (943)
61 17 67
IRUN